

UDALBURUA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2017ko URTARRILAREN 19an
EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Iratxe Parro

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamazazpiko urtarrilaren hemeretzian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkatea, Gentza Alamillo Udaeta jauna, da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/85 Legea) 46.b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ
DIRENAK

Josu Artetxe

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongietorria egin die eta, besterik gabe, ohiko bilkurako gai-zerrendan dauden puntuak eztabaidatu eta bozkatzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko abenduaren 22an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Behin-behinean onestea, bidezkoa bada, Arespalditzako Administrazio Batzak eskatutako Udal Arau Subsidiarioen 7. Aldaketa Zehatza; horren bidez, Aiarako 5. poligonoko 84. katastro-lursailean (Arespalditzako “El Ferial” barrutian) dagoen erabilera anitzeko eraikinaren kalifikazio xehatuan esleitutako erabilera baimenduak areagotu nahi dira.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Udalak eginiko jarduerak, Udal Arau Subsidiarioen 7. Aldaketa Zehatzari buruzko espedientea izapidetzeko.

IKUSI DA.- 2016ko azaroaren 17an eginiko ohiko bilkuran aldaketa hori onetsi egin zela, hasiera batean, eta jendaurrean jartzeko hilabeteko aldia ireki zela, zegokion iragarkia ALHAOn argitaratzen zenetik zenbatzen hasita. Iragarkia 2016ko azaroaren 30eko ALHAOn argitaratu zen (134. zk.). Horrez gain, erabakia udalerriko Administrazio Batza guztiei jakinarazi zitzaizen, zegozkien txostenak egin zitzaten.

IKUSI DA.- Hilabeteko jendaurreko aldia igarota, ez zaiola txostenik edo alegaziorik aurkeztu dokumentuari.

AINTZAT HARTU DA.- Udal Idazkaritzak 2017ko urtarrilaren 3an egindako aldeko txostena.

AINTZAT HARTU DA.- Hirigintza, Lan eta Zerbitzuak eta Ingurumena Batzordeak 2017ko urtarrilaren 10eko bilkuran emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Lurzoruaren araubideari eta hiri-antolamenduari buruzko Legearen Testu Bateginak, ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsiak, 114-1 eta 128-1 artikuluetan ezarritakoa, eta Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legearen (ekainaren 30eko 2/2006 Legea) 90. artikulua zein ondorengoek eta 104. artikulua ezartzen dutena.

AINTZAT HARTU DA.- Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legearen (ekainaren 30eko 2/2006 Legea) 85.3 artikuluan xedatzen dena.

Udalbatzak, bertaratu direnen adostasunarekin (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10), honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Behin-behinean onestea Arespalditzako Administrazio Batzak eskatutako Udaleko Arau Subsidiarioen 7. Aldaketa Zehatzaren espedientea; horren bidez, Aiarako 5. poligonoko 84. katastro-lursailean (Arespalditzako “El Ferial” barrutian) dagoen erabilera anitzeko eraikinaren kalifikazio xehatua esleitutako erabilera baimenduak areagotu nahi dira.

Bigarrena.- Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igortzea, nahitaezko txostena egin dezan.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena jaso ondoren, espediente osoa Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko Hirigintza Zerbitzuari igortzea, behin betiko onetsi dezan.

Bosgarrena.- Erabaki honen berri ematea udalerriko Administrazio Batzei, horren berri izan dezaten eta dagozkion ondoreak izan ditzan.

3.- Onestea, bidezkoa bada, Udalak hartutako erabakia, Arabako Foru Aldundiak beste 24 hilabetez, behin-behinekoz, udalerrri honetako gizarte-zerbitzuak ematen jarraitzeko adostasuna adierazten duena, 2016ko abenduaren 26ra arte egin duen moduan.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du EH BILDUK aukerako beste testu bat bidali zuela, eta talde guztiei bidali zitzaizela.

Lauren jaunak (EH BILDU) esan duenez, gobernu taldeak aurkeztutako testuko zioen azalpenean ez zaio batere kritikarik egin Aldundiari, eta egin behar zaio; izan ere, 8 urte igaro dira Legea onetsi zenetik eta, orain, epea amaitu denean eta ezertxo ere egin gabe, luzapena eskatu da. Udalek ez dituzte ezagutzen beren betebeharrak. Ez daude kontra, baina uste dute kritika egin behar dela, ez baita zerbitzu-karta itxi, ezta herritarrek lege horren babesean dituzten eskubide

guztiak bermatu ere. Hain zuzen ere, zerbitzu batzuk ez dira ematen, esaterako, adinekoak zaintzen dituztenentzako laguntzak.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du EUDELEk gai hau lantzeko sustatutako erakundearteko mahaian bertan deialdia egin zitzaiela alderdi guztiei eta independenteei. Mahai horretan Gizarte Zerbitzuen Mapa onetsi zen, eta hori da hartutako konpromisoa, baina orain erabaki hau proposatzen da, udalek onets dezaten. Horren bidez erabakiko da Aldundiak jarraitzea, behin-behinean, gizarte-zerbitzuak ematen, beste bi urtez, abenduaren 26tik hasita eta orain arteko baldintza berberetan.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) hau esan du EH BILDUK aurkeztutako aukerako idatziko zioen azalpenari buruz:

- EH BILDUK, bere zuzenketan, erakundearteko mahaiak onetsitako Arabako Gizarte Zerbitzuen Mapari eska dakizkiokeen gutxieneko bitartekoei buruz egon diren desadostasunak aipatu ditu.

Mahai hori Arabako Foru Aldundiak sortu zuen talde politiko guztiei ahotsa emateko, eta baita independenteei ere. Une horretan EH BILDU ez zegoen EUDELEN.

Arabako Gizarte Zerbitzuen Mapa erakundearteko mahaian onetsi zen.
EH BILDU bakarrik agertu zen dokumentua onestearen kontra.

- Aipatu du, halaber, Aldundiak erakunde arteko mahaian hartutako konpromisoak bete ez izanaren harira EH BILDUK egindako zuzenketa.

Aldundiak ez ditu inola ere hautsi erakundearteko mahaian hartutako erabakiak.

- Toki Erakundearen Finantzaketarako Foru Fondoa arautzen duen Foru Arauaren (19/1997 Foru Araua) berrikuspenari dagokionez, Foru Arau hori berrikusteko batzorde txostengilea osatu da Batzar Nagusietan.

Gizarte-zerbitzuen arloko eskumen berrien finantzaketari dagokionez, edonola ere, finantzaketa hori berrikusi egin beharko litzateke erakunderen batek, kasu honetan udalek, orain arte ematen ez dituzten zerbitzuak bere gain hartuko balituzte, baina ez da horrela izan.

- Zerbitzu berriak edo gutxi garatutakoak finantzatzeko funtsaren banaketari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoak erabaki zuen 2014ko abenduaren 19ko bilkuran, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua onetsi zenean, funts hori baliabide berri horiek finantzatzen dituzten organoetara bideratzea.

Gaur egun, Arabako Foru Aldundiak finantzatzen ditu baliabide horiek.

Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoa osatzen du Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek eta EUDELEk, eta horietako edozeinek zuen beto-eskubidea.

Erabakia hartu zen unean, Arabako Foru Aldundian Alderdi Popularra zegoen buru, eta Gipuzkoako Foru Aldundian EH BILDU, eta ez zuten beto-eskubidea baliatu.

EH BILDUK aurkeztutako aukerako erabakiko puntuei dagokienez, Gentza jaunak hau aipatu du:

- Erakunde bat bera ere ez dago derrigortuta Diputatuen Kontseiluko 904/2016 Erabakiarekin bat etortzera.

Lehen mailako arretako zerbitzuak emateko eskumena udalena da 2016ko abenduaren 26tik, eta Aldundiak Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiarekin egiten duena da Arabako udalei adierazi orain arte ematen zituen zerbitzuak ematen jarraitzeko prest dagoela, 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan.

Tokiko autonomia errespetatzen da. Udal bakoitzak bere borondatez erabakitzen du Aldundiak hartutako erabakiarekin bat egin edo ez.

- Erakunde-maila bakoitzaren erantzukizuna indarreko legeriak zehazten du.

Beharrezkoa bada, estamentu judizialek zehaztu behar dituzte sor daitezkeen erantzukizunak.

Nork bere burua salbuetsizat aitortzeak ez du esan nahi egokitu dakizkiokeen erantzukizunak bere gain hartu behar ez dituenik.

Edonola ere, erabakia behin-behinekkoa da, 24 hilabeteko aldi baterako.

Aldi horretan, erakundearteko mahaiaren esparruan lan egingo da, eta udal bakoitzarekin, gizarte-zerbitzu guztiak berrantolatzeko bakoitzari dagokion eskumenaren esparruan.

Asmoa da, berrantolaketa hori gauzatzen den bitartean, arabarren gizarte-eskubide guztiak erabat bermatuta geratzea”.

Lauren jaunak (EH BILDU) adierazi du Udalak erabaki hori onartu beste aukerarik ez duela; izan ere, ez dauka gaitasunik, inola ere, legeak herritarrei aitortzen dizkien zerbitzu eta eskubide guztiak abian jarri eta bermatzeko. Udalak nahitaez onartu behar du erabaki hori, bestela inolako babesik gabe geratuko baita.

Gentza jaunak Udalaren eta Aldundiaren arteko bilkura baterako deialdia egitea proposatu du, koordinazio hori abian jartzeko lan-metodologia eta -egutegia aztertzeko.

Iraida andreak (AB) esan du, kontua nola dagoen ikusita, erabakia onartu beste aukerarik ez dutela. Dena den, gustatuko litzaioke informazio gehiago jasotzea; izan ere, ez dute Gizarte Zerbitzuen Maparen informaziorik eman, eta ez da argi geratu zer dagokion Udalari eta zer Aldundiari. Ez dute iritzi bat izateko behar adina daturik, eta, horrenbestez, beharrezko informaziorik gabe joaten dira lan-mahai horietara. Galdetu du, halaber, ea nork ordezkatzeko dituen udalak erakundearteko mahai horretan.

Gentza jaunak erantzun dio EUDELen lan-mahai horietara joan diren hainbat alkate arabar daudela; besteak beste, Amurriokoa, Zanbranakoa eta Murgikoa.

Iraida andreak gehitu du Aiarako Udaleko datuak ere izan nahi dituztela.

Gentza jaunak esan du alkateak bilkura batera deitu dituztela azalpenak emateko, eta bertan esandakoa Arloko Batzordean jakinaraziko duela. Horrez gain, udal honek egokitzen jotzen dituen ekarpenak igorriko ditu.

Iraida andreak galdetu du, azaldutakoari buruzko zalantzak edukiz gero edo datu nahiz informazio gehiago nahi izanez gero, nori galdetuko dioten.

Gentza jaunak erantzun dio, beharrezkotzat joz gero, bilkura baterako deialdia egin dezaketela Aldundiarekin, eta behar den guztia azaldu eta argitzera etor daitezela eskatu.

Nerea andreak (EH BILDU) gehitu du erabaki bat hartzeko proposamena egin diotela Udaltzari, baina ez dutela horretarako behar adina daturik.

Gentza jaunak erantzun du erabaki honen helburu bakarra dela Arabako Foru Aldundiari eskatzea zerbitzuak ematen jarrai dezala abenduaren 26tik aurrera, orain arte egiten zuten moduan.

Nerea andreak esan du orain egoera bestelakoa dela; izan ere, herritarrek legez aitortuta dituzten zenbait eskubide subjektibo eska diezazkiokete Udalari, eta ez dakite horiek bermatu ahal izango diren.

Gentza jaunak erantzun dio eskumena Udalarena dela, abenduaren 26a baino lehenagoko babesgabetasun-egoera berdinean baitaude.

Iraida andreak aipatu du bere taldeak ez duela erabakia onesteko arazorik, baina uste dutela 24 hilabete hauetan arduraz lan egin behar dela eta erabakiak ahalik eta modu gardenenean hartu behar direla, datu gehiagorekin. Esaterako, dagoeneko hasi dira gauzak aldatzen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzuei dagokienez (taxiko bonuaren kudeaketa-eredua, besteak beste).

Gentza jaunak (EAJ-PNV) hitzeman du behar den guztia azaltzera etortzeko eskatuko diola Aldundiari.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan eta bozketa egin da. Udaltzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen (abenduaren 5eko 12/2008 Legea; aurrerantzean, GZL) 42. artikulua ezartzen duen moduan, Udalari dagokio funtzio hauek gauzatzea:

(...)

3) 29. artikuluan zehazturik datozen oinarritzko gizarte-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea.

4) *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea, telelaguntza-zerbitzua izan ezik (...). Lehen arretako gizarte-zerbitzu horiek 22. artikuluko 1. paragrafoan daude arauturik.*

IKUSI DA.- GZLaren 2. artikulua gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa ezartzen duela, 2016ko abenduaren 26an perfekzionatuko dena.

AINTZAT HARTU DA.- Araudi-eskakizun horiek berehala aplikatu behar direla eta, horrenbestez, hau jakinarazten dela:

a) GZLaren 42. artikulua, eta Legean jasotako beste araudi-erreferentzia batzuek, bereizi egiten dituzte udal-eskumena eta zerbitzuaren prestazio eraginkorra.

b) GZLaren helburu argi eta zehatza da udal-eskumenerako gizarte-zerbitzuak hainbat udal elkartuta eman ahal izatea (GZLaren 28.2 eta 29.4 artikulua).

c) Helburu hori beharrezkoa da Arabako Lurralde Historikoan; izan ere, udalerrri batek ere, Gasteizek izan ezik, ez du gainditzen 20.000 biztanleko muga. Aiara ere ez da muga horretara iristen, bertako biztanleria 3.000 pertsonatik beherakoa baita.

d) Prestazio partekatu hori jasota dago, halaber, GZLaren 36.5 artikuluan; izan ere, bertan ezartzen da Gizarte Zerbitzuen Mapak, aplikatu ahal izateko, foru- eta toki-administrazioek zehazten dituzten banaketa geografikoak hartuko dituela aintzat. Bere garaian onetsi zen Arabako Lurralde Historikoko Zerbitzuen Mapa, baina une honetan zehazteko dago udal-mugapetik haragoko lurralde-esparruan eman behar diren gizarte-zerbitzuak emateko modua.

e) Udal honek ezin ditu, bere tamainarengatik eta Lurralde Historikoko Mapara egokitzeko ezintasunagatik, gizarte-zerbitzu horiek bere kabuz eman; eta horiek arrazoi objektiboak dira.

f) Oraindik ez da adostu kudeaketa partekaturako formula egoki bat, elkartuta edo beste bide instituzional batetik, gizarte-zerbitzu horiek ematea ahalbidetuko duena.

g) Orain arte Arabako Foru Aldundiak ematen zituen udal-zerbitzuetako asko, bere kabuz eta hitzarmenen bidez, eta ezarritakoaren arabera zerbitzu horiek udal-eskumenekoak dira.

h) GZLak berariaz aitortzen du administrazioen arteko lankidetzaz eta koordinazio-betebeharra; hori berezkoa du gizarte-zerbitzuz osaturiko honelako sistema batek.

i) Era berean, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 31.2.a) artikulua ezartzen du Aldundien xedeetako bat dela “probintziako lurralde osoan udalerrriaren eskumeneko zerbitzuak osorik eta egoki betetzea ziurtatzea”.

AINTZAT HARTU DA.- Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 904/2013 zenbakiko Erabakia; horren bidez onesten da Lurralde Historikoko udalei helaraztea 2016ko abenduaren 26tik aurrera gizarte-zerbitzuak ematen jarraitzeko proposamena, orain arte Aldundiaren eta 20.000 biztanletik beherako Arabako Lurralde Historikoko udalerrien artean kudeatu den moduan. Zerbitzu hori behin-behinean baino ez du emango Aldundiak, aldi batez.

AINTZAT HARTU DA.- Beharrezkotzat jotzen dela, udal-eskumenekoak diren zerbitzuak emateko eta Gizarte Zerbitzuen Legean, Zorroari buruzko Dekretuan eta Plan Estrategikoan zehaztutakoa betetze aldera lankidetzan jarraitzeko; hori guztia egungo Gizarte Zerbitzuen Euskal Zerbitzuarekin bat datorren perspektiba teknikoa, juridikoa eta finantza-nahikotasunari dagokiona ardatz hartuta.

HAU GERTATU DA.- 2016ko abenduaren 26tik aurrera bermatu egin behar da udalerrri honetako herritarrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko duten eskubide subjektiboa, eta, horrenbestez, erabat bermatuta geratu behar dute, Aldundiak eta udalerrri honek orain arte eman eta kudeatu dituzten moduan.

Eta, araudiari dagokion datutik abiatuta, aipatu erabakiaren bigarren puntuak ezartzen du, hori eraginkorra izan dadin, udalerrri bakoitzeko eskumeneko udal-organoak erabakia onartu eta dagokion jakinarazpena egin behar diola Arabako Foru Aldundiari, ziurtagiri bidez.

Gizarte-zerbitzu horiek bere kabuz edo beste batzuekin elkartuta ematea ezinezkoa dela ikusita, Aiarako Udaleko Udaltzarak, aho batez, **ERABAKI DU**:

Lehenengoa: Aiarako Udala Diputatuen Kontseiluaren 904/2016 Erabakiarekin bat datorrela adieraztea; horren arabera, Aldundiak gizarte-zerbitzuak ematen jarraituko du 2016ko abenduaren 26tik aurrera, Aldundiak eta 20.000 biztanletik beherako Arabako Lurralde Historikoko udalerriek orain arte elkarrekin kudeatu duten modu berean. Zerbitzu hori behin-behinean emango du Aldundiak, 24 hilabeteko aldi batez, eta aldi horretan, Mapa egiteko eratutako erakundearteko mahaiak gizarte-zerbitzu guztiak emateko behar diren baliabide tekniko, ekonomiko eta juridikoak proposatuko ditu, bakoitzari dagokion eskumen-esparruan. Mapa pixkanaka ezarriko da adierazitako aldian.

Bigarrena: alkateari erabaki honetan zehazten den guztia garatzeko eta kudeatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena: erabaki honen berri ematea Arabako Foru Aldundiari, Diputatuen Kontseiluaren erabaki horretako bigarren puntuan jasotako ondoreetarako.

- **Aztergaien zerrendako hurrengo puntuarekin jarraitu aurretik, eta aurreko gaiarekin lotura duenez, alkate jaunak Udaltzari proposatu dio EH BILDU udal-taldeak gai honen harira aurkeztutako aukerako erabakieredua aztergaien zerrendan sartzeko premia bozkatzeara.**

Premiari buruzko bozketa egin da, eta honako hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 3 EH BILDUK

Kontrako botoak: 5 EAJ-PNVk

Abstentzioak: 2 ABk

Horrenbestez, premia ez da onetsia izan, eta ez da aukerako erabaki-proposamena eztabaidatu.

4.- EH BILDUK aurkeztutako mozioa, “Espainiako polizia-indarrak hemendik ateratzeko, gure segurtasun-eredu propioa lortzeko”.

Nerea andreak (BILDU) aipatu duenez, egiaztatuta dago Euskal Herrian 23.000 poliziako kide daudela, eta Europako gomendioek 6.000 kide inguru gomendatzen dituzte honelako lurralde baterako. Gainera, poliziako kide horiek guztiek edukitzeak urtean gutxi gorabehera 1.500 milioi euroko kostu ekonomikoa dakar. Dagoeneko 5 urte igaro dira Aieteko Adierazpenetik, eta Euskal Herria desmilitarizatzeke lehen urratsak ematen hasi behar dugu. Eusko Jaurlaritzak eskaera egin du Estatuko segurtasun-indarrak pixkanaka atera daitezen. Horrek udalerriari eragiten dio, dagokion kostua denon artean ordaintzen baitugu.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) aipatu du mozio bat adosteaz hitz egin zela, baina Bildu ez dela beraiekin harremanetan jarri. Gehitu du kostua handia dela, baina ez direla gogoratu aurreko urteetan polizia integralaren bidez pertsonak babesteko behar izan diren beste segurtasun-kostu batzuez.

Nerea andreak (BILDU) gaineratu du mozio honetan 2017rako kostuei buruz ari direla hizketan; ez iraganaz, baizik eta oraingo kostuez.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan eta bozketa egin da; emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: 3 EH BILDUK
Kontrako botoak: 5 EAJ-PNVk
Abstentzioak: 2 ABk

Horrenbestez, Udaltzako ez du mozioa onetsi.

5.- EAJ-PNVk EH BILDUREN MOZIOARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA; MOZIOA ESPAINIAKO POLIZIA-INDARRAK HEMENDIK ERABAT ATERATZEARI BURUZKOA DA.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da; emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: 5 EAJ-PNVk
Abstentzioak: 5 (3 EH BILDUK, 2 ABk)

Horrenbestez, hau onetsi da:

“Gentza Alamillo Udaeta jaunak, Aiarako Udaleko EAJ-PNV udal-taldeko bozeramaileak, indarrean dagoen araudiaren babesean, EH-BILDUK Espainiako polizia-indarrak hemendik erabat ateratzeari buruz aurkeztutako mozioaren ZUZENKETA hau aurkeztu du.

ZUZENKETA

1.- Aiarako Udalak berretsi egiten du Espainiako Gobernuari eginiko eskaera, bere segurtasun-indar eta -kidegoak bere eskumeneko esparrura bakarrik mugatu ditzala eskatzeko, Gernikako Estatutuan eta indarreko ordenamendu juridikoan ezarritakoari jarraikiz.

2.- Aiarako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, alde batetik, utz diezaiola Segurtasun Batzordeak adostutako Ertzaintzako kide-kopurua errekurso judizialaren bidez zalantzan jartzeari, eta, bestetik, ken ditzala Ertzaintza euskal gizartearen zerbitzura dagoen polizia integraltzat jotzeko jartzen dituen oztupoak. Izan ere, nazioarteko lankidetzaren handia behar izan duen Europako segurtasun-estrategia bati jarraitu zaio Ertzaintza euskal gizartearen polizia izan dadin (lan handia egin da bai agenteekin bai inteligentziarekin), Gernikako Estatutuarekin eta indarrean den ordenamendu juridikoarekin bat eginez.

3.- Aiarako Udalak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatzen dio Segurtasun Batzordean gai hau lantzeko, Euskadin egon behar duten Estatuko segurtasun-kidego eta -indarretako agenteak egokitze aldera, benetako segurtasun-beharrak eta Gernikako Estatutuak ematen dituen eskumenak aintzat hartuta”.

6.- Honako hauen berri ematea: 2016ko irail, urri eta azaroko kontaketa-aktak, gastu eta diru-sarreraren balantzea, kartillen egoera eta kreditu-aldaketak.

Udaltzako kideak jakinaren gainean gelditu dira.

- **Aztergaien zerrendako hurrengo puntuarekin jarraitu aurretik, alkate jaunak Comercial De Limpiezas Villar enpresari ordaindu behar zaion kalte-ordainari buruzko puntu berri bat sartzea proposatu du, premiazkoa delako. Kalte-ordaina ordaindu behar zaio, hain zuzen ere, aurreko garbiketaren enpresak ordaindu ez zizkien zenbatekoak ordaindu dizkielako langileei.**

Premiari buruzko bozketa egin da, eta aho batez onetsi da. Horrenbestez, honako puntu hau gehitu da:

7.- Onestea, bidezkoa bada, Comercial de Limpiezas Villar enpresari eman beharreko kalte-ordaina, adiskidetze-prozesuaren ostean, zerbitzua esleituta zeukan aurreko enpresak hiru langileri zor zizkien nominak eta Gizarte Segurantzarako kotizazioak ordaindu izanagatik.

Jarraian, gaiaren inguruko bozketa egin da, eta bertaratutakoek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Comercial de Limpieza Villar SAK 2017ko urtarrilaren 2an aurkeztutako idatzia; horren bidez, Udalarari eskatzen dio kalte-ordainak eman diezazkiola enpresa horrek hiru garbitzailereri ordaindutako zenbatekoengatik. Ordainketa hori egin behar izan zien, hain zuzen ere, zerbitzuaren aurreko esleipendunak, GURBISA Servicios Auxiliares SL enpresak, ez zizkielako zenbait hilabete ordaindu, haien eskubideak urratuz.

HAU GERTATU DA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzaren Adiskidetze Atalean izapidetutako adiskidetze-espeditentearen akta aurkeztu dute; horren bidez, Comercial de Limpieza VILLAR SARI aitortu zaio langileei ordaindutako soldata gordinaren eta kotizazioen kalte-ordaina ordainduko zaiola (aurreko esleipendunak ordaindu ez zizkielako), gehi sortu diren berandutze-interesak. Zenbatekoa, guztira, 14.603,14 eurokoa da.

HAU GERTATU DA.- Comercial de Limpieza VILLAR SA enpresari esleitutako garbiketa-zerbitzuko kontratuaren oinarri zen baldintza-agiriaren 14. klausulak honako hau ezartzen zuen: kontratatzaileak aurreko esleipendunak ordaindu ez zituen lan-betebeharrak ordaindu behar baditu, indarreko araudiari jarraituz, administrazioak kontratudun enpresari kontzeptu horretan ordaindutako zenbatekoaren zenbateko berdineko kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio. Betiere, aurreko esleipendunaren baldintza ekonomikoak aintzat hartuta, ikusten bada bere eskubidea erabiliz kalte-ordainak jaso ezingo dituela. Horrez gain, klausulak honakoa jasotzen du: administrazioak kontratatzaileari kalte-ordainak ordaintzen badizkio, horrek ordainketa jasotzeko ekintzak egin beharko ditu aurreko esleipendunaren kontra; edo konkurtso-deklarazioko kasuetan, bere kreditua jakinarazi beharko du, eta bere kreditu guztia edo kredituaren zati bat jasoko balu, ordaindu zaizkion zenbatekoak bueltatu beharko lizkioke administrazioari.

HAU GERTATU DA.- 2013ko urriaren 29ko osoko bilkuran, Udalak indargabetu egin zuen GURBISA Servicios Auxiliares SL enpresari esleitutako garbiketa-zerbitzuaren kontratua, eta bere garaian emandako fidantza konfiskatu zuen.

HAU GERTATU DA.- Osoko bilkura horretan pieza banandua hasi zen, kontratua likidatzeko aldeei dagozkien eskubide eta betebeharrak eta sor zitezkeen kalte-galerak zenbatzeko. Horrez gain, kontratistari 10 eguneko epea eman zitzaion Udalean zenbait hilabetetako langileen soldatak eta gizarte-aseguruak (2013ko uztailekoa, uztaileko apartekoari dagokiona, abuztuko, irailekoa eta urrikoa) ordaindu izanaren ziurtagiriak aurkezteko; izan ere, ordainagiri horiek ez ziren eman, eta beraz, kontratua ez zen bete.

Era berean, adierazi zen, hori ez egitekotan, ulertuko zela betebeharrak ez zirela bete, likidazioan kontuan hartzeko. Ohartarazi zen, halaber, hala behin betiko fidantza nola kontratistari ordaindu beharreko zenbatekoak berme gisa erabiliko zituela udal honek, garbiketa-zerbitzuaren kontratu berriaren enpresa esleipendunari ordaindu beharreko kalte-ordainei aurre egiteko, langileak subrogatzeagatik. Halaber, aurreko esleipendunak bete gabeko lan-betebeharrak ordaintzeko kondenari aurre egiteko erabiliko ziren, indarrean dagoen lan-legeriarekin bat etorriz.

HAU GERTATU DA.- Jakinarazpena egin eta gero, eta konkurtso-administratzailearekin behin eta berriz errepikatutako kudeaketak gorabehera, kontratua indargabetu zaion enpresak, konkurtsoan dagoenak, ez du informaziorik eman 2013ko uztaila eta urria bitarteko langileen soldaten eta gizarte-aseguruen ordainagiriei buruz.

HAU GERTATU DA.- Langileetako batek erreklamazio judiziala egin zuen Gurbisa Servicios Auxiliares SL enpresak ordaindu gabeko soldatak eskatzeko, eta Lan Arloko Auzien Bilboko 17. Epaitegiak, 2014ko apirilaren 30ean emandako epaiaren bitartez, ezarri zuen Comercial de Limpiezas Villar SA enpresak, solidarioki Gurbisa Servicios Auxiliares SLrekin batera, zenbateko hori gehi zegozkion interesak eta kostuak ordaindu behar zituela, aintzat hartuta aurreko esleipendunaren eta oraingoaren artean enpresa-ondorengotza gertatu zela eta kontratu horrek lehendik zeuden langileak subrogatzeko betebeharra ezartzen zuela.

HAU GERTATU DA.- Comercial Limpiezas Villar SAk ordaindu zizkion langileari Gurbisa Servicios Auxiliares SLk zor zizkion zenbateko guztiak, gehi zegozkion interesak. Horrenbestez, Aiarako Udalak, langileari ordaindutako zenbateko berberak ordaindu zizkion Comercial de Limpiezas Villar SAri, zerbitzua esleitzean Gurbisa Servicios Auxiliares SLri konfiskatutako behin betiko fidantza erabiliz, udal-eraikinak garbitzeko zerbitzuaren kontratua enpresa horri esleitzeko oinarri gisa erabili zen baldintza-agiriaren 14. klausulan ezarritakoa betez.

HAU GERTATU DA.- Beste hiru langileek ere judizialki erreklamatu dituzte zor dizkieten zenbatekoak (Fogasak ordaindu gabeko zatia).

HAU GERTATU DA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salak 2016ko martxoaren 22an emandako epaiaren bidez erabaki zuen Comercial de Limpiezas Villar SA enpresak ez zizkiela langile horiei ordaindu behar aurreko enpresa esleipendunak zor zizkien zenbatekoak.

AINTZAT HARTU DA.- Udaltza honek ulertzen duela, justizia materiala ardatz hartuta, beren zerbitzuak eman izan dituzten langileek kobratu egin behar dituztela dagozkien soldatak, aplikatu beharreko interesekin. Are gehiago, ezin da desberdinkeria-egoera hau onartu; izan ere, langileetako batek zor zitzaizkion zenbatekoak jasotzeko eskubidea baliatu ahal izan zuen, baina gainerako langileei ez dizkiete eskatutako zenbatekoak ordaindu.

HAU GERTATU DA.- Udal honek Gurbisa Servicios Auxiliares SLri konfiskatutako behin betiko fidantzari dagozkion 24.417,06 euro ditu. Zenbateko hori nahikoa da Comercial de Limpiezas Villar SAri dagozkion kalte-ordaina emateko, langile horiei zor zaizkien zenbatekoak, gehi interesak, ordain diezazkien. Horrenbestez, kalte-ordaina ordaintzeak ez luke kalterik eragingo Udaleko diru-kutxetan.

IKUSI DA.- Idazkari kontu-hartzaileak 2016ko urriaren 17an eginiko txostena.

IKUSI DA.- Idazkari kontu-hartzaileak eta udal-diruzainak 2017ko urtarrilaren 17an eginiko eragozpen-txostena.

Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Jakinarazitzat jotzea Comercial de Limpieza Villar SA enpresak J. O. L., I. E. I. eta M^a J. U. O. andreei egindako ordainketak, eta Gizarte Segurantzari ordaindu gabe zeuden kotizazioengatik egindakoak; ordainketen zenbatekoa 14.603,14 euro da, laneko betebeharrengatik zor zitzaizkien zenbatekoen eta horien interes eta kostuen kontzeptuan.

Enpresa horri 14.603,14 euroko kalte-ordaina ematea.

Enpresari agintzea eman zizkion zenbatekoak Udalari bueltatzeko, baldin eta konkurtsoan bere kreditua jakinarazi eta gero bere kreditu osoaren edo zati baten ordainketa jasotzen badu.

Bigarrena.- Pieza bananduaren izapidearekin jarraitzea, bere garaian GURBISA Servicios Auxiliares SL enpresarekin, orain konkurtsoan dagoenarekin, sinatutako garbiketa-zerbitzuaren kontratua likidatzeko aldeei dagozkien eskubide eta betebeharrak zenbatzeko; eta ordaindutako 14.603,14 euroak udal honi sortutako kalte-galera gisa egozte.

Konkurto-administratzaileari alegazioak egiteko 15 eguneko epea ematea, egokitzen jotzen duen dokumentazioa aurkez dezan.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri ematea Comercial de Limpieza VILLAR SA enpresari eta GURBISA Servicios Auxiliares SLren konkurtso-administratzaileari.

Lehenengo puntuaren kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu, zuzenean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean.

Bigarren puntua izapide hutsa denez, ezin da inolako errekurtsorik jarri, egokitzen jotzen diren egintzak alde batera utzi gabe.

➤ **Aztergaien zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, alkateak beste puntu bai gehitzea proposatu du, premiazkoa delako. Azaldu du aurreko egunean IVAPen eta EUDELen prestakuntza baterako deialdia iritsi zela udaletara. Prestakuntzaren helburua da Izapideen Eskuliburua sortzea. Programan parte hartzeko lehen baldintza da Izapideen Eskuliburua egiteko 2017ko Prestakuntza eta Laguntza Programari atxikitzea. Ez digute argitu ea atxikitze hori alkatetzaren dekretu bidez egin zitekeen; horrenbestez, Udalbatzari proposatzen diogu parte hartzeko erabakia hartzea, horretarako epea laburra baita.**

Premiari buruzko bozketa egin da, eta aho batez onetsi da. Horrenbestez, honako puntu hau gehitu da:

8.- Izapideen Eskuliburua egiteko 2017ko Prestakuntza eta Laguntza Programari atxikitzea.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du izapideak arrazionalizatzeko proiektu honetan parte hartzeko erabakia ezin zuela gobernu taldeak bakarrik hartu. Denok inplikatu beharko dugu; izan ere, uste dugu positiboa izango dela Udalaren barneko lanerako, eta herritarrei izapideak errazago egiteko aukera emango diela.

Iraida andreak (AB) esan du ados dagoela, eta funtsezkoa iruditzen zaiola. Bere taldeak urtebete darama hori eskatzen. Beharrezkoa da izapideen eskuliburu bat edukitzea, prozedura batzuk estandarizatuta egon daitezen eta beti berdin egin daitezen.

Gentza jaunak esan du iaz ere programa honetan parte hartzen saiatu zirela, baina EUDELeK eta IVAPeK esan zietela lehentasuna ematen zitzaiela 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerriei; horregatik ezin izan zuten parte hartu.

Lauren jaunak (EH BILDU) esan du ideia ona iruditzen zaiola, baina proposamenak ustekabeen harrapatu dituela.

Idazkariak azaldu du deialdia aurreko egunean iritsi zela, eta ezin izan dutela horretaz arduratzen den IVAPeko pertsonarekin harremanetan jarri. Hori dela eta, ezinezkoa izanda argitzea ea Udalbatzaren adostasuna behar den edo ez. Hurrengo osoko bilkura egiterako izena emateko epea amaituta egongo da, horregatik sartu da osoko bilkura honetako aztergaien zerrendan, premiaz.

Lauren jaunak galdetu du ea ez den prestakuntza-beharrik antzeman langileengan, prestakuntza-programa bat ezartzeko.

Gentza jaunak esan du tresna informatikoen alorreko prestakuntza eman behar dutela, baina leku egokia lortzeko zenbait zailtasun egon direla. Era berean, adierazi du IVAPeK eskaini duen zeharkako prestakuntzaren katalogoa banatu dutela langile guztien artean.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- EUDELeK eta IVAPeK elkarren artean eratutako programa berri bat atera dutela 2017rako, euskal udaletako berrikuntza eta modernizazioa ahalbidetzeko. Horren bidez, prestakuntza- eta laguntza-jarduerak gauzatzeko dituzte udalei beren Izapideen Eskuliburua egiten laguntzeko.

IKUSI DA.- Prozesu horren bidez, 9 hilabeteren buruan, parte hartzen duten udalek beren administrazio-izapideak berrikusita, arrazionalizatuta eta sinplifikatuta edukiko dituzte, eta Izapideen Eskuliburuak idatzita.

AINTZAT HARTU DA.- Udal honek programa horretan parte hartzeko interesa duela, EUDELeK eta IVAPen aholkularitzari jarraituz Izapideen Eskuliburu bat egiteko prozesua gauzatzeko.

Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.-- Izapideen Eskuliburua egiteko 2017ko Prestakuntza eta Laguntza Programarekin bat egitea, eta administrazio-izapideak aztertu, arrazionalizatu eta sinplifikatzea.

BIGARRENA.- Alkateari programa hau garatzeko behar diren atxikitze-protokoloak sinatzeko eta programa bera gauzatzeko ahalmena ematea.

9.- Alkatetzaren dekretu hauen berri ematea:

- **Erref.- 514/16.- A.R.D.L.C.-** Onestea Soxon behi-ganaduaren jarduera sailkatua zabaltzea.
- **Erref.- 515/16.- A.R.D.L.C.-** Okupatzeko udal-lizentzia ematea Soxoko lursail batean dagoen abeltzaintza-nabeari eta horri atxikitako eraikinari, bazka-biltegi gisa erabiltzeko.
- **Erref.- 516/16.- Hnas. I. V. SC.-** Onestea Menoion haragitarako behi-ganaduaren eta esnetarako ardi-ganaduaren jarduera sailkatua zabaltzea.
- **Erref.- 517/16.- Hnas. I. V. SC.-** Okupatzeko udal-lizentzia ematea Menoioko 5. poligonoko 2208 lursailean eraikitako abeltzaintza-nabeari.
- **Erref.- 518/16.- Zuhatzako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Zuhatzako kontzeju-etxea birgaitzeko obra-proiektua idazteko ordainsarien gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 519/16.- Arespalditzako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Arespalditzako hainbat obratako proiektuak idazteko ordainsarien gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 520/16.-** Diru-laguntza eskatzea AFari, Obra Txikiak Egiteko 2017ko Programaren barnean.
- **Erref.- 521/16.- Onestea F/2016/14 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 522/16.- J.M.J.A.-** Fidantza eskatzea, Olabazarren dagoen baserri bateko estalkia berritzeko eta fatxadan zulogune bat irekitzeko obretako hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 523/16.- A.G.M.-** Onestea Arespalditzako jatetxe-jarduera.
- **Erref.- 524/16.- Menagari-Beotegiko Administrazio Batza.-** Dokumentazio gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 525/16.- Menagari-Beotegiko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Jauregui auzoan bideari eusteko obraren proiektua idazteko eta obra zuzentzeko ordainsarien gastuak finantzatzeko.
- **Erref.- 526/16.- Madariako Administrazio Batza.-** Fidantza eskatzea, Madariako andelera iristeko bidea konpontzeko obretako hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 527/16.- J.P.D.B eta Zandesa.-** Ebaztea Lantenoko lur-mugimenduak eta lursaila betetzeko lanak direla-eta hasitako zaharberritze-espeditentea.
- **Erref.- 528/16.- Agiñagako Administrazio Batza-** Diru-laguntza ematea, hondakin-urak arazteko sistema ordezteko obraren proiektua idazteko ordainsariak finantzatzeko.
- **Erref.- 529/16.- Olabazarreko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, La Cadena eta Arzosteko bideak hobetzeko obrak zuzentzeko eta segurtasuna eta osasuna koordinatzeko ordainsarien gastuak finantzatzeko.
- **Erref.- 530/16.- Aiarako Administrazio Batzak.-** Diru-laguntza ematea, erantzukizun zibileko aseguruak finantzatzeko.
- **Erref.- 531/16.- E.C.B.-** Hasiara ematea lursaila ofizioz berreskuratzeko espeditentari eta udal-lizentziarik gabe egindako obraren ondorioz kaltetutako hirigintza-ordena berrezartzeko espeditentari.
- **Erref.- 532/16.- Murgako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, 2016an ur-andelak kloratzeko gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 533/16.- Menoioko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, 2016an ur-andelak kloratzeko gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 534/16.- Lexartzuko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, 2016an ur-andelak kloratzeko gastua finantzatzeko.

- **Erref.- 535/16.- Alkatearen 4/2016 kreditu-gehikuntzari dagokion espedientea.**
- **Erref.- 536/16.- 5/2016 kreditu-gaikuntzaren espedientea.**
- **Erref.- 537/16.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, 2016an ur-andelak kloratzeko gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 538/16.- Agiñagako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, 2016an ur-andelak kloratzeko gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 539/16.- Lantenoko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, 2016an ur-andelak kloratzeko gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 540/16.- Etxegoieneko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, 2016an ur-andelak kloratzeko gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 541/16.- Etxegoieneko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, 2016an ur-andelak kloratzeko gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 542/16.- Ibaizabal Zerbitzuen Ermandadea.-** Diru-laguntza ematea, 2016an ur-andelak kloratzeko gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 543/16.- Alkatearen 3/2016 kreditu-transferentziari dagokion espedientea.**
- **Erref.- 544/16.- Maroñoko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, 2016an ur-andelak kloratzeko gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 545/16.- Murgako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Murgako Ugarte bidea zolatzeko obraren memoria idazteko eta aholkularitza emateko ordainsarien gastuak finantzatzeko.
- **Erref.- 546/16.- Arespalditzako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Arespalditzako erabilera anitzeko eraikinen ingurunea urbanizatzeko proiektua idazteko eta obra zuzentzeko ordainsarien gastuak finantzatzeko.
- **Erref.- 547/16.- Soxoko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Soxoko Ubierte auzorako bidean horma sendotzeko obraren proiektua idazteko eta obra zuzentzeko ordainsarien gastuak finantzatzeko.
- **Erref.- 548/16.-** Kontratista bat aukeratzea Luiaondoko 3. poligonoko 1333 lursailean erabilera publikoko jarduketan obra egiteko.
- **Erref.- 549/16.- Aiarako Administrazio Batzak-** Diru-laguntza ematea, 2016an obrak egiteko.
- **Erref.- 550/16.- M.J.O.U.-**Ebaztea ondare-erantzukizuneko administrazio-espedientea.
- **Erref.- 551/16.- Akki-Tek Diseño y Aplicaciones Constructivas SL-**Ebaztea Luiaondo eta Arespalditzako kirol askotarako pistak ixteko obraren proiektua idazteko zerbitzuen kontratua.
- **Erref.- 1/17.- 2016ko aurrekontua luzatzea, 2017 ekitaldirako.**
- **Erref.- 2/17.- Naturgas Energía Distribución SAU-** Lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea, 2016ko 4. hiruhilekoko gas-horniduraren kontzeptuan.
- **Erref.- 3/17.- Madariako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Madariako ur-andelerako bidea konpontzeko.
- **Erref.- 4/17.- EDP Comercializadora SAU-** Lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea, 2016ko 4. hiruhilekoko gas- eta elektrizitate-horniduraren kontzeptuan.
- **Erref.- 5/17.- EDP Comercializadora de Último Recurso SA -** Lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea, 2016ko gas- eta elektrizitate-horniduraren kontzeptuan.
- **Erref.- 6/17.- Zorroza Gestión SL-** Ebaztea 2016-09-14ko 461/14 zenbakiko Alkatezaren Dekretuari jarritako berraztertze errekurtsoa.

- **Erref.- 7/17.- V.P.-** Hasiera ematea biztanleen erroldan ofizioz baja emateko espedienteari.
- **Erref.- 8/17.- I.M.U.P.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondon dagoen eraikin baten estalkia konpontzeko.
- **Erref.- 9/17.- J.D.L.-** Agiri gehiago eskatzea, Luiandon dagoen etxebizitza bateko leihoak aldatzeko obrarako udal-lizentziaren espedientearen harira.
- **Erref.- 10/17.- U.E.O.-** Agiri gehiago eskatzea, Zuhatzan dagoen etxebizitza bateko fatxada konpontzeko obrarako udal-lizentziaren espedientearen harira.
- **Erref.- 11/17.- M^a.I.C.F.-** Agiri gehiago eskatzea, Arespalditzan dagoen etxebizitza baterako sarbidea gaitzeko obrarako udal-lizentziaren espedientearen harira.
- **Erref.- 12/17.- I.L.B.-** Agiri gehiago eskatzea, Lantenon dagoen etxebizitza bat birgaitzeko obrarako udal-lizentziaren espedientearen harira.

* Iraida andreak (AB) 531/16 Dekretuari buruz galdetu du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio ikusi zutela Murga poligonoko udal-lursail batean animaliak, eraikinak eta hesiak zeudela, horretarako baimenik gabe. Arrakada-zenbakia begiratuta animaliak norenak diren identifikatu da, eta espediente horri hasiera emanez eskatu zaio lursaila lehengo egoerara itzul dezala, eraikinak eta hesiak kenduz, eta animaliak bertatik atera ditzala. Hori guztia Olabezar Administrazio Batzak eskatuta eta harekin batera egin da; izan ere, bertan bizi diren herritar asko kexatu egin dira, ezin zutelako bide publikoetatik igaro, itxita baitzeuden.

10.- Eskaerak eta galderak.

- Iraida andreak (AB) galdetu du ea zer egoeratan dagoen 2017rako diru-laguntza, eta ea argitaratu den ALHAOn.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du elkarteei igorri zitzaieela, azter zezaten. Zentzuzko epe bat utzi da eta, ekarpenik iritsi ez denez, laster bidaliko da ALHAOran, argitara dadin.

Iratxe andreak (AB) galdetu du ea zergatik ez den abenduan bidali argitaratzeko.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dutela lehenago bidali, batetik, elkarteei bidali behar zitzaielako, eta, bestetik, aldaketa gehiago egin direlako Kulturako teknikariak eta idazkariak berrikusitako eranskinetan.

Jorratzeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilkura bukatutzat eman du hemeretziak eta berrogeita bost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamazazpiko urtarilaren hemeretzian.

O.E.
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.